

## BEZEROAREKIKO HARREMANA

Bezeroen presentzia beharrezkoa da gure negozioan; izan ere, bezerorik gabe enpresa ezin da aurrera joan. Hori dela eta, oso garrantzitsua da bezeroak erakartzea, baita horiek mantendu ere. Horretarako hainbat gauza ezberdin egingo ditugu. Gure bezeroak agureak diren arren, gehienbat harremana seme-alabekin mantenduko dugu, horregatik alde batetik irratiko iragarkiak edo hizketaldiak egingo ditugu agureentzat, eta bestetik sare sozialetan egongo gara oso presente, haien senideentzat.

Hasteko, zahar egoitzetan **hizketaldiak** emango ditugu, gure enpresa aditzera emateko, ematen dugun zerbitzuari buruz informatzeko eta zalantzak argitzeko. Horrez gain, publizitate **liburuxka** batzuk egin ditugu. Bertan, gure enpresari buruzko azalpen txiki bat dago, gure datuekin nahi duenak kontaktatu ahal izateko.

**Nortzuk gara?**  
Gure enpresa ideia hobetu ikolotako enpresa da. Alde batetik, mendeakotan gaitu bat duzuen pertsona heldu adina erretiratu beharrik ez dago; eta beste alde batetik, inmigranteak lagundu, lan bat eskaintza dugu, gaituratu dugu. Adinako pertsonen beharrik ez diren hainbat zerbitzu eskaintza dugu, konpainia ematen ematen lagundu edo akibitate fisikoak egitea bezala. Eta gainera, inmigranteen saila oso hurbil tratatuko dugu. Kapazitate dagoen pertsonak lagundu nahi ditugu, prestakuntza, bat eskaintza edo gero agurekin lan egiteko oportunitate emango dugu, gaituratu dugu. Modu huztean lan inmigranteak lan mendeakotan egiten dituzten pertsonak lagundu dugu.

**Kontaktatu gurekin**  
Zamindatze taldea 8. zerb. 8100, 48004 934 789 653

Instagram: @Laguntzature  
Twitter: @Laguntzature  
Youtube: Laguntzature

Agureak laguntza behar dutelako, horregatik gaude hemen.

Bestalde, **iragarkiak** edukiko ditugu

bai internetan bai irradian, eta mota guztizko **sare sozialak**, bezero potentzialei erraztasuna eskainiz, informazioa lortu ahal dutelako etxetik mugitu gabe. Twitter, instagram eta youtube kontuak ditugu, han “Elevator Pitch” bezalako bideoak ditugu gure enpresa zertan datzan azalduz, baita argazkiak eta iragarkiak ere. Halaber, liburuxkan dagoen zenbakiarekin telefonoz deitu ahal gaituzte edo WhatsApp-en bidez kontaktatu, behar dituzten galderak erantzuteko.

Gainera, Kirikiño egoitzaren bidez, gure bazkideak direla, gure negozioa **ezagutzera emango dugu**, eta zahar egoitzetan **bezeroak lortuko** ditugu. Bezeroak mantenduko ditugu zerbitzu on bat ematen, **laguntza pertsonala** ematen, hau da, bezero bakoitzarentzat zerbitzu desberdin bat sortuko dugu haien beharren arabera. Gure prezioak eskuragarriagoak izateko **eskaintzak** egingo ditugu hilero, bezeroak gure proposamenari lotuta jarraitzeko. Horretarako, hainbat deskontu egingo ditugu:

**Sei hilabete bezero izaten** → Azken hilabeteko prezio totalaren %2ko deskontua  
**Urte bat bezero izaten** → Azken hilabeteko prezio totalaren %5ko deskontua  
Handik aurrera, urte bakoitza hilabete bakoitzeko prezio totalaren %1 gehiagoko deskontua suposatuko du (bi urte pasatzean hilabete bakoitza %1 gutxiago kostatuko litzateke, hiru urte pasatzean hilabete bakoitza %2 gutxiago...).

Horrez gain, hainbat ekintza antolatuko ditugu urtean zehar (txangoak eta tailerrak gabonetan edo udan). Ekintza desberdin hauek egingo ditugu guretzako oso garrantzitsua delako bezeroarekiko harreman ona izatea eta bezeroen konfidantza edukitzea.